

## **PREMIAZKO INTERPELAZIO ZUZENA**

### **ARRIOLA PASEALEKUKO HOSTEL BERRIAREN LANEI BURUZKOA**

EH Bildu udal taldearen bozeramaile naizen Reyes Carrerek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 97. artikulua ematen didan aukeraren bidez, Arriola pasealekuko hostel berriaren lanei buruzko **INTERPELAZIO ZUZEN** hau egiten diot Donostiako alkate Eneko Goiari, osoko bilkuran hari buruzko azalpenak eman ditzan.

### **JUSTIFIKAZIOA**


Badira hilabeteak Arriola pasealekuko 15-21 zenbakietako komunitateetako bizilagunek kezka agertu zutenetik beren etxebizitzan azpian egiten ari diren proiektua dela eta. Aipatu proiektua 26 logelako ostaturia da eta 220 ohe ditu.

2022ko martxoan bizilagunak udal-taldeekin elkartu ziren kezka horiek adierazteko, eta bi dira nagusiak: batetik, horrelako jardura batek bizilagunen lasaitasunean izan dezakeen eragina, eta bestetik, legezketasun-kontuak. Zentzu honetan, bizilagunek Administrazioarekiko Auzien Auzitegira eraman dute proiektua. Hala ere, proiektuaren lanei aurrera jarraitzen dute, eta kezka areagotu egin da, proiektua amaituta egon gabe ere, nonbait hostelak udarako irekiera eta jarduna iragarri baitu.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen dudan zinegotzi honek honako INTERPELAZIO hau egiten dut

- Zer dela eta baimendu du Udal Gobernuak lanekin aurrera jarraitzea komunitateak salatutako ez-betetze larriekin?
- Udal Gobernuak ba al daki obrak behar bezala amaitu izanari oniritzia eman aurretik eta dagokion jardura-lizentzia lortu gabe hostela bere jarduna merkaturatzen ari den?

Donostian, 2022ko maiatzaren 25ean



Reyes Carrere,  
EH Bildu udal taldearen bozeramailea.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

---

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia